

3. FUNTSEZKO SOZINETATEAK

Proiektua aurrera eramane ahal izateko, laguntza behar du eta sozietate hauek ezinbestekoak jo ditugu hori lortzeko: albaitari, etologo, komunikazio-agentzia, adopzio-elkarte eta boluntarioak. Animalien zaintza eta jokabideari, kudeaketa, lege-arlo, eta komunikazio/marketing estratergiei dagokienez profesionalak direlako.

Elkarlana jarraitua eta elkarren onurarako izango da: Txakurren jabeek egun osoan, edota tarte motz batean, maskotak utzi ahal izango dituzte diru-sarrera bat ordainduta, eta adopzio-elkarteek, adinekoek eta profesionalak beren ekarpena egingo dute, konfiantza eta koordinazio sendoan oinarrituta.

Horrela, alde guztiek irabazten dute: adinekoek ongizate emozionala eta konpainia jasotzen dute, txakurrek arreta eta sozializazioa, jabeek segurtasuna, eta elkarrekin adopzio arduratsua sustatzen dute, proiektuaren jarraikortasuna eta gizarte-balioa bermatuz.

Sozietate hauen interes eta onura orokorrak bermatzeko, proiektua behar bezala egokitutako hainbat espaziotan antolatuko da:

- Espazio nagusian taberna edo kafetegi bat kokatuko da, adineko pertsonek txakurrekin egoteko, tailerretan parte hartzeko edota elkargune sozial gisa erabiltzeko aukera izan dezaten.
- Halaber, kanpo-gune egokitu bat aurreikusten da, animalientzako espazio gisa eta hainbat jarduera eta dinamika gauzatzeko.
- Txakurrentzako egonleku espezifikoa ere diseinatuko da, haien zaintza, atsedena eta ile-apaindegia zerbitzuak modu egokian eskaintzeko.
- Azkenik, sarrera nagusian harrera- eta administrazio-gune bat egongo da, informazio-puntu gisa jardungo duena eta proiektuarekin lotutako kudeaketa eta administrazio-lanak zentralizatzeko balioko duena.